



PRENTSA OHARRA

Santa Maria Katedralak musika koral, folk eta euskal musika tradizionalako kontzertuak hartuko ditu datozen hiru larunbatetan

- Emanaldiak Nafarroako Ganbera Koralkak (urriaren 21ean), Karlos Subijanak (urriaren 28an) eta Aitzina Folk jaialdiaren barruan (azaroaren 4an) Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabal bikoteak, emango dituzte.
- Gaurtik aurrera lor daitezke edozein kontzertutara joateko gonbidapenak Santa Maria Katedrala Fundazioaren Bisitarien Zentroan edo www.catedralvitoria.eus [webgunean](#).

Gasteizen, 2023ko urriaren 16an.- Santa Maria Katedralak Nafarroako Ganbera Koralkaren, Karlos Subijana artista arabarraren eta –Aitzina Folk Jaialdiaren barruan– Gorka Hermosak eta Garikoitz Mendizabalek osatutako bikotearen emanaldiak hartuko ditu datozen hiru larunbatetan. Kontzertu guztietarako sarbidea doakoa da, Santa Maria Katedrala Fundazioaren Bisitarien Zentroan edo www.catedralvitoria.eus webgunean gonbidapena jaso ondoren –leku guztiak bete arte–.

“Kontzertu horiek hiriaren dinamizazio kulturalarekin dugun konpromisoaren parte dira” – gogorarazi dute Santa Maria Katedrala Fundaziotik–, “eta ahalik eta pertsona gehienek horrelako musika emanaldiez gozatzeko aukera izatea nahi dugu, ahal dela doan, hiru kontzertu horien kasuan bezala”.

Programatutako lehen kontzertua Nafarroako Ganbera Koralkarena da, eta Katedralaren nabean izango da urriaren 21ean, larunbata, 19:30ean. Emanaldi horretara doazenek Heinrich Schütz (1585- 1672) konpositore alemaniarren figura hobeto ezagutzeko aukera izango dute, konpositore horren hainbat obratan oinarrituta sortutako Un Mesías “Avant la Lettre” proiektuaren eszenaratzearen bidez.

Astebete geroago, urriaren 28an, Karlos Subijana, besteak beste, txirula, alboka eta txalapartaren biruosoaren, txanda izango da. Emanaldia Santa Maria elizpean izango da, arratsaldeko 19:00etan. Kontzertu horrek oso izaera berezia du Subijanarentzat berarentzat, “Doinu miresgarriak Leku miresgarriak” biraren azken emanaldia izango baita. Bira horrekin,

FUNDACIÓN CATEDRAL SANTA MARÍA KATEDRALA FUNDAZIOA

Cuchillería, 93 · 01001 Vitoria-Gasteiz · / www.catedralvitoria.eus

Prentsa / Prensa: Javier Palacios - 628 538 199 - comunicacion@atedralvitoria.eus

bere probintziako, Arabako, zazpi kuadrilletan barrena ibili da, bere azken lana, “Zaharrak berri” aurkezten.

Azkenik, eta Nazioarteko Aitzina Folk Folklore Jaialdiaren barruan, azaroaren 4an, larunbata, – 19:00etan baita ere– arkupeak Gorka Hermosa eta Garikoitz Mendizabal bikotearen emanaldia hartuko du. “Sustraien matxinada” proiektua aurkeztuko dute, tradizioa eta modernitatea batzen dituen XXI. mendeko euskal musikaren ikuspegi iraultzailea.

Edozein kontzertutara joan nahi dutenek Santa Maria Katedrala Fundazioaren Bisitarien Zentroan (Santa Maria Kantoia, 3) edo www.catedralvitoria.eus [webgunean](#) jaso ditzakete gonbidapenak.